Paris, 1948, Loriãak 12

Jon Mirande Jna
106 Bd Davout Paris XX.
(PRANTZiA)

MONZON-OLASO 'tarko Telespor
Jaunari
Donibane-Lohitzu'n (EUZKADi)

Jaun aberkide maitea,

Barkatu otoi zerbait zuri galdetzeko zuzentzen ba'natzaizu gaur:
Ezagut-erazi didazun adizkide beriak, Jean Loustau'k azken gutun batean aipatzen zidan zure bigarren olerki-liburua, "Gudarien egiñak".
Ez nakien ba zanik ere eta asmatu dezakezu beraz ene atsegiña ori jakitearekin. Paris'ko eusko ordezkaritzean eskatu nuen bereala, bañan, ondikotz! an ez zuten salgai...

Esker aundia nizuke beraz esan ba zinezat nun arkitu dezaketan zure bigaŕen idazti au, zein liburu-saltokitan; len-bai-len eskuratu nezake eta ziur nago "Urundik" irakurtzean artu nuen poz bera emango ditala onek ere, bereziki euskotar gudari bikaños egintz aintza-gaŕiak bai'dakazki.

Aberkide ospetsua, bérez ere zure azkespena eskatuz amaituko det ene gutuna.

Artu itzazu neure euskal agurik onenak, J.-E.-L. baitan.

[signature]

Orain duela denbora gutxi artu nuen eskutitz bat, P. Oihanburu "Gernika" bazkunekoarena. Ene izena zuk emana duela dio, eta erantzun egin diot luzatu gabe.